


AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Jarduera Fisikoa sustatzeko zerbitzu berria

Andoingo Udalak eta Osasun Etxeak abian jarritako ekimenak Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesas jaso du / 12

1.066 sinadura Urnietan

Aiurri astekariaren aldeko herri-ekimenak babes zabala jaso du, bi asteko epean / 5

**Axeri
puska-biltzaileen
irteera
Buruntza auzora,
larunbat honetan / 14**

**"Baserritarren
Laguna"
izendapena jasoko du
Joxe Mari Zeberio
andoaindarrak / 15**



Txotx 2024

**Laster Aiurriko harpidedunek
etxean jasoko dute**

Aiurriren eskutik, euskal kantagintzaren onena argitalpen ederrean!



Nerea Arruti eta Imanol Ansa kirolariak izan ziren Urnietako txotx irekieraren gonbidatu nagusiak. AIURRI



Erakundeetako ordezkariak eta sektoreko kideak, omenduekin batera. AIURRI



Oianume, Eula, Elutxeta eta Altuna sagardotegiko kideak, prest. AIURRI

Urnietako lehen txotx irekiera

Sagardotegi denboraldiari hasiera eman dio Urnietak herriko lehen txotx-ekitaldiarekin. “Gure Adarraren sagardoa” lelopean, 300.000 litro ekoitzi dituzte herriko lau sagardotegiek

Erredakzioa URNIETA

Martxan da aurtengo sagardodenboraldia, baita Urnietan ere. Elutxetako, Eulako, Oianumeko eta Altunako upeletatik edateko aukera izango dute datozen hilabeteetan urnietarrek nahiz Euskal Herriko askotariko txotkotatik hurbildu ohi diren sagardozaleek. Hala, herriko sagastiei ikusgarritasuna eman eta lau sagardotegien urte luzetako jardunari zukua atera asmoz, txotx irekiera-ekitaldia izan zen Urnietan lehenengo aldiz iragan asteazkenean, hain justu ere, Altuna sagardotegian. Nerea Arruti eta Imanol Ansa kirolariak izan ziren gonbidatu nagusiak, eta “Gure Adarraren sagardoa!” lelopean dastatu

zuten lehen sagardo-zurruta. Bertan izan ziren, era berean, gainerako herriko sagardogileak, baita erakundeetako zenbait ordezkari ere, besteak beste: Jorge Segurado Urnietako alkatea, Xabier Arruti Lurralde Oreka Berdeko diputatua eta Olatz Mitxelena Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko koordinatzailea. Danbolin Txistulari Bandako Antton Jauregik eta Juxto Egañak ipini zioten melodia hitzorduari, eta aurrerakua dantzatu zuten Aukeran Dantza Konpainiako Maier Murrumendiaraz eta Unai Iraola dantzariak.

Esker onez hasi zuen bere hitzartzea Xabier Altunak, herriko sagardogile guztien izenean.

Eta ekoizpenaren gaineko datuak ipini zituen mahai gainean “sagardoa Urnietan ere badela” azpimarratzeko: 2023. urtean, herrian, 300.000 litro sagardo ekoitzi ziren eta horietatik 200.000 litro Euskal Sagardoa Jatorri Izendapenarekin. Horretarako, Urnietako zein inguruko herrietako sagastietako 300.000 kilogramo sagar erabili dira.

“Naturako turismoarekin eta bertako produktuen sustapenarekin duen konpromisoa indartu” nahi du Urnietako Udalak. Hala, Seguradok azaldu duenez, herriko ondare kultural eta gastronomikoa sustatzeko asmoz antolatuko da aurrerantzean ere Urnietako sagardogileen txotx-denboraldiaren irekiera.



Aukeran dantza konpainiak eta Txanbolinek ekitaldian parte hartu zuten. AIURRI



Urnietako
udala



Erakundeetako eta sagardogileen sektoreko ordezkariak, agerraldia deitu zuten egunean. AIURRI

Sor-marka komuna Euskal Herri osoan

Albiste berri batekin hasi du urtea Euskal Sagardoa Jatorri Deiturak, bere ibilbideak ia zazpi urte betetzen dituenean: Zuberoako, Behe Nafarroako eta Lapurdiko sagar-biltzaileek nahiz sagardogileek konpromisoa azaldu dute Jatorri Izendapeneko kide izateko

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Izena partekatzen dute eta baita sagardoa bera ere. Pirinioetako bi aldeetako sektoreak proposamen bat lantzen aritu dira azken hilabeteetan, INAO (Frantziako Jatorri eta Kalitatearen Institutu Nazionala) eta HAZI-ko teknikarien laguntzarekin eta Eusko Jaurlearitzaren eta Euskal Herria Hirigune Elkargoaren koordinazioarekin eta babesarekin. Hori horrela, aurrerantzean, Euskal Sagardoa/Sidra del País Vasco, Cidre du País Basque/Euskal Sagarnoa izango da mugaz gaindiko Jatorri Deituraren izena. Bruselako oniritzia jaso ostean, Nafarroako sektorea gehituko da egitasmora.

Horren guztiaren berri emateko, Donostiako Eusko Jaurlearitzaren delegaritzan bildu ziren, pasa den ostiralean, agerraldia egiteko, besteak beste: Arantxa Tapia Eusko Jaurlearitzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburua, Joseba Erramundegi Euskal

Elkargoko Mugaz Gaiendiko Europako eta Nazioarteko kontseilaria, Jose Mari Aierdi Nafarroako Gobernu Landa Garapen eta Ingurumen kontseilaria, Unai Agirre Euskal Sagardoa jatorri izenaren zuzendaria eta Bixintxo Aphaulek Domaine Bordattoko sagardogilea.

Elkarlana eta batura

"Produktuari eta ekoizleari zor diegu", adierazi zuen Unai Agirrek prentsa-agerraldian. Hiru esparrutan eman dira aldaketak. Lehenik, lurraldetasunean, zeren Gipuzkoari, Bizkaiari eta Arabari, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoa batuko baitzaizkie. Bigarrenik, sagar-motei dagokionez, 106tik 200 sagar mota izatera igaroko dira. Eta, azkenik, sagardoak ere definitu egin behar izan dituzte, nahiz eta iturburu berekoak izan.

Gaur egun, 50 sagardotegi daude Euskal Sagardoaren barruan. Hala mugaz gaindiko hitzarmenarekin, eta, aurrera

begira, Nafarroa gehituta, 80 sagardotegitan ekoiztiko litzateke Euskal Sagardoa.

Zer emango die Jatorri Izendapenak eragile guztiei? "Lanarako erreminta" dela aitortu zuen Agirrek, ahalegina "balorean" jartzen duelako eta "posizionamentua" ematen diolako produktuari: "Bakarrik baino askoz hobeto goaz guztiok elkarrekin".

Bat dator baieztapenarekin Aphaule, Iparraldeko hiru lurraldeen izenean: gaur egun, Ipar Euskal Herrian, zortzi sagardogile eta 50 bat sagar-ekoizle daude. "Lan honek gure sagarren jatorria, berezitasuna eta aniztasuna baloratzeko aukera ematen digu", azaldu zuen, "mugaz gaindiko kalitatezko ikur baten bidez: Euskal Sagardoa sor-marka". Aitorpen horri esker, euskal sagardoa etxean eta nazioartean "balorizatu" egingo denaren iritzi da sagardogilea, "jatorri eta ekoizpen-baldintzen kontrola eta babesa" bermatuta.

Euskal Sagardoa, orain ere sagarno

Duela sei urte pasatxo hasi zuen bidea Euskal Sagardoa Jatorri Izendapenak, bi oinarri nagusierekin: ehuneko ehunetan bertako sagarrez egindako sagardoa da eta kalitate-berme guztiak ditu indarrean produktuak. Orduko xede berberak mantentzen dituela gogorarazi zuen ostiraleko agerraldian Tapiak: "Sektorea elkartu, sagardoaren kultura elkartu, sagargileei eta sagardogileei bultzada eman". Horrez gain, kontsumitzaileari mezu garrantzitsua helarazi behar zaiolakoan da sailburua: "Tokiko eta goi mailako produktua da. Beraz, tokikotasunean sinesten badugu, dei egiten diet sagardozaleei hori kontsumitzera, kalitatezko bermea duelako, gainera".

Gaurko eguna "herrigintzan sinesten dugunontzat mugarri historikoa, instituzionala eta politikoa" dela azaldu zuen Erramundegik, izan ere, haren hitzetan, euskal jatorriko lehen mugaz gaindiko izendapena baita: "Ez da gutxi lortu nahi duguna. Europaren erantzunaren zain geldituko gara".

Ez da lan makala izan prozedura, kontseilariak dioenez, epe laburrean, testuinguru administratibo eta juridiko konplexuan murgildu baitira, ekoizleak baita Euskal Herria ordezkatzeko duten erakundeak ere. Dena dela, zamak zama, guztien aldeko jarrera eta elkarlanerako borondatea nabarmendu zituen hitzartzean. Jose Mari Aierdi aritu zen Nafarroako Gobernuaren izenean, Euskal Sagardoa Jatorri Izendapenak Nafarroako lurralde-garapen jasangarriaren estrategiarekin bat egiten duela azaltzeko. "Ez dugu soilik espazio eta iruditeria geografiko, historiko kultural, ekonomiko, linguistiko eta sozial berbera partekatzen. Estrategia bera partekatzen dugu: babesa eta sustapena eman nahi diegu tokiko produktu tradizionalei". Horren aurrean, "kalitatezko nekazaritza" lehenetsi du bozeramaileak, landa-eremua "bizia eta aktiboa" izan dadin.

"BAKARRIK BAINO ASKOZ HOBETO GOAZ GUZTIOK ELKARREKIN"

UNAI AGIRRE



Alvarez eta Gaztañaga. AIURRI

"Arretaz eta mimoz zaildutako sagardoa da"

Sektorearen aldeko oharra argitaratu du Andoaingo Udalak, bi sagardotegiak martxan hasi berritan

Erredakzioa ANDOAIN

Goatzeko deia luzatu du Andoni Alvarez Andoaingo alkateak, urtarrilaren 19an Gaztañaga eta Mizpiradi herriko bi sagardotegietara egindako bisitaldian. Izan ere, egun horretan bertan ireki zituzten ateak. Aintzat hartu zuen alkateak sagardogileek egindako lana, "arretaz eta mimoz zaildutako sagardoa" dela nabarmenduz. Aldi berean, errespetuz jokatzeko deia ere egin du alkateak: "Lanean ari direnekiko, sagardotegiaz eta sagardoaz disfrutatzen gerturatan den herritar guztiekiko errespetuz jokatzeko dei egiten dugu". Halaber, Andoainek ez duela erasorik onartuko erantsi zuen.



Arruabarrena eta Alvarez. AIURRI



ANALISIA

JON ANDER UBDA ANDOAIN

Nork, zer eta nola

Aurreko astean Vocento taldeak argitara eman zuen albisteak zalaparta ekarri zuen Andoainera. Ez dugu askotxo behar. Zehazki esanda, ez dugu deus behar. Inongo berritasunik ematen ez duen albiste itxurako notiziak aztoratu duelako jendarte. Klikaren klikaz bisitalditxo batzuk jasoko zituen "La Diputación y el Gobierno chocan por un proyecto para el nudo de Bazkardo" izenburuko horrek. Ondorio horretara iritsi naiz whatsapp bidez bolboraren abiaduran haizatu zelako albistearen lotura. 'Clickbait' deritzo teknika horri: argitaratzailearen webgunera bisitak egitea du helburu, haren publizitate-sarrerak handitzeko. Albistea herritar askori inporta dion auzia izanik, ordea, mamia aztertzen hasi eta nekez topa daiteke egoera analizatzeko esaera egokiagorik: ezer ez eta festa. Izan ere, zer dio albistek? Batetik, Espainiako Gobernuak Andoaingo Udalarari 476.000 euroko partida helarazi diola, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolamendurako saila bere egitasmoa lantzen ari den bitartean. Horrek, ondorioz, udalaz gaindikoak diren Espainiako Gobernuaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko talka sortu dela. Klik egin gabe, albistearen titular hutsean geratu denarentzat, horixe laburpena. Bazkardoko lotuneari buruzko informazio gose dabilenarentzat, bertan topatuko duenak ez du ezustean harrapatuko. Jakina baita proiektu alternatiboa lantzeko diru partida iritsiko zela, eta ezaguna da erakundeen arteko talka egon badagoela. Administrazio ezberdinen eskuduntzez ari garenez, artikulu horretan bada arreta deitzen duen detailea: Andoaingo Udalaren adierazpenak jasotzea ahaztu dute.

Data berekoa da Andoaingo Alkate Andoni Alvarez Letek, hamahiru galdera-erantzuneko elkarrizketa zabalagoan, auziari buruz Aiurri astekariari adierazitakoak: "N1 eta A15 lotunearekin Andoain dugun arazoa ezaguna da. Zarata- eta kutsadura-azterketak egiten ari gara. Iaz, Espainiako aurrekontuetatik 476.000 euro lortu ziren eta partida horrekin 2011ko egitasmoan oinarritutako alternatiba garatuko da. Aipatu genuen bezala, auziari loturiko mahaia martxan jarri dugu. Sorabilla Auzo Elkartea, C2ak kaltetutakoen plataforma, udalean ordezkariak duten alderdi politikoak eta teknikariak parte hartzen ari dira bilera horietan. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bilera berria aurreikusten ari gara. Sukalde-lanean ari gara, eta uda honetarako alternatiba mahai-gaineratzea espero dugu".

Vocento taldeak gaia haizatu zuenez, Noticias taldea ez zen atzean geratu. DVren lehiakideak kosk egin zion lehenak iritzi publikoan mahaigaineratutakoari, eta Maria Ubarretxena foru diputatuari eginiko elkarrizketa argitaratu zuen. Behartu samarra dirudi, protagonistak ur handitan sartzeko beldurra balu bezala. Kazetariaren galdera: "Ba al dakizu idazten ari zareten proiektu berrian onartutako alegazioak Andoaingo Udala asebeten duen? Zein mailatan?". Diputatuaren erantzuna: "Ea, gu Andoaingo alkatearekin batzartuta egon ginen legealdia hasi zenean,

NEKEZ TOPA EGOERA ANALIZATZEKO ESAERA EGOKIAGORIK: EZER EZ ETA FESTA

eta guk ere ahalegin bat egiteko eskatu ziguten... nik ikusten ditut oso..." (sic). Adierazpenetan, gai horretan behintzat, ezin esan foru diputatua zehatza denik.

Beraz, zertara dator ez-albiste batetik artikulu-sorta argitaratzeko arrazoia? Esaldi bakarrera mugatzen da erantzuna: Zilegitasuna nori dagokion gogorazazi nahi da. Eta hori ere, beste behin, ez da nobedadea. Zaharrak berri, horretan ere bai. Andoain bete-betean hartzen duen aferan iritzi kualifikatua emateko gaitasun morala, erromatarren Auctoritas delakoa, Aldundiarena dela iradokitzen baita. Marko diskurtsibo hori indartzera datoz DV eta Noticias egunkarietako artikuluak.

Alegazioen osteko C2 delakoa eta gero sortuko den egitasmoaren aurrean, zuzenean eragingo dion Andoain herriak izango du zer esana, eta udalaz gaindiko erakundeetako ordezkariak ez lukete hori gutxietsi behar. Hasteko, egitasmo propioa defendatzeko eta gustuko ez duena adierazteko eskubide osoko herritargoa duelako. Eta, horrekin batera, Udalaren eskumenekoa den Hiri Antolamendurako Plan Orokorra eskuan, orain arte aurkeztu zaizkion egitasmoekiko aurka agertzeko argudio sendoak dituelako.

Auctoritas hori nork ezarri behar duen gogoraztea, zer eta nola aplikatuko den oso argi azaltzen ez bitartean, gaizki ikusita dagoen jardunbide politikoa da egungo gizartean.

EZ LITZATEKE ANDOAIN HERRIAK IRITZIA EMATEKO DUEN ESKUBIDEA GUTXIETSI BEHAR



KOMUNITATEA

HURRIA-SAHARA ANDOAIN

Elikagaien bilketa Andoain

Saharako errefuxiatu kanpalekuetarako elikagaiak biltzeko kanpainak aurrera darrai, Hurria-Sahara eta Andoaingo Udalaren arteko elkarlanari eta ikastetxe zein eta herriko merkatalguneen eskuzabaltasunari esker.

Eskola-adinean dauden adingabeak dituzten familiek ikastetxeen bidez egin dezakete beren ekarpena, janaria hara eramanez. Gainerako herritarrek honako saltoki hauetan laguntza eman dezakete: Zumea plazako Eroskin, Karrikako Coviranen edota Bazkardoko Telletxean. Pasta, arroza, atuna eta lekaleak jasoko dira. Aurten glutenik gabeko elikagaiak bilduko dira saharar kanpamenduean bizi diren zeliakoak aintzat hartuz.

Dagoeneko elikagaiak jaso dira BMn eta Ondarretako Eroskin, eta urtarrilaren 26an eta 27an bilketa berezia egingo da Super Amaran.

Lerro hauen bidez, errefuxiatuen kanpalekuetan egoera humanitarioa larriagotzen ari dela jakinarazi nahi dugu. Hori adierazteko baliagarriak dira 2024ko urtarrilaren 12an Nafarroako Parlamentuko Nazioarteko Elkartasunerako batzordearen lan-saio batean hainbat GKEk emandako datuak aipatzea:

- Saharar errefuxiatuek ia berrogeita hamar urtetik gorako gatazka kroniko eta ahaztua bizi dute. Egun hainbat krisietan islatzen da hori: humanitarioa, elikagaien aldetik, osasun arlokoa...
- Afrikako lurralde honi etengabe eragiten diete muturreko tenperaturek, sirokoek eta uholdeek, aldian-aldian errepikatzen ari diren zikloetan.
- Pandemiak eragin handia izan zuen errefuxiatu kanpamalekuetan: hasitako garapen-proiektuen geldialdia eta jarduera ekonomikoaren moteltzea ekarri du horrek.

- Europar, Afrikan eta Asian gerra ezberdinak pizteak kanpamenduen oinarritzko beharrak asetzea helburu zuten nazioarteko laguntza funtsak eta baliabideak murriztea ekarri du.
- 2010ean, 14.000 adingabek parte hartu zuten Oporrak Bakean kanpainan, eta pandemiaren ondorengo urteetan kopuru hori 4.000 eta 2.500 izatera murriztu da, hurrenez hurren.
- Su-etena hautsi eta Marokoko ejertzitoaren bonbardaketen ondorioz 5.000 pertsona baino gehiago iritsi dira kanpalekuetara babes bila.
- Krisi ekonomikoek eta gerrateek eragindako prezioen igoerak murrizketak ekarri dituzte kanpamentuetara iristen ziren elikagaietan, eta murrizketa horiek, kasu batzuetan, % 50eraino izatera iritsi dira. Oinarritzko elikagai-banaketan gertatutakoak ia 40.000 pertsona utzi ditu babesik gabe, eta oinarritzko saskia herritarren % 75era baino ez zio iristen. Pertsona kalteberen portzentaia % 95era iristen da.
- Ondorioz, 5 urtetik beherakoan artean malnutrizioa % 28,8ra iristen da, eta anemia, berriz, adin tarte bereko % 54,2ra, % 8ra 9 haurdun dauden emakumeen artean, % 77ra bularreko haurretan eta % 53,5 ugaltzeko adinean daduen emakumeetan. Sahararrek ez dute egoera horrekin etsi, eta bizitza eta erresistentzia antolatzen jarraitzen dute kanpalekuetan eta okupatutako lurraldetan: okupatutako lurraldetan, Andoaingo herriari dei egiten diogu Sahara ez dezan ahaztu eta, ondorioz, elkartasuna mantentzea eta areagotzea, kasu honetan, elikagaiak bilketaren bidez.



Urnieta herri eragileetako ordezkariak San Juan plazan, astearte arratsaldean, sinadurak eskuan dituztela. AIURRI

Erredakzioa URNIETA

Akzioak erreazioa eragin du. 2023ko abenduan, Aiurri astekariari bideratu beharreko dirulaguntza nabarmen jaitsiko zela jakinarazi zion Udal gobernu taldeak Aiurriko lantaldeari. Erantzuna bat-batean iritsi zen, eta ez soilik Aiurri-İnistorraren eskutik. Urnieta gizarte eta kultur bizitzaren ordezkariak zabalaren eskutik, baizik. Atxikimendu handia jaso du Aiurri, geroztik. 2024ko aurrekontuak onartzen ziren plenoan ez zen lortu dirulaguntzaren jaitsiera saihestea, eta galde-erreguen atalean Jon Unanue İnistorrako ordezkariak bere adierazpenean iragarri bezala, Udaleria eskakizun berberarekin itzuliko zirela aurreratu zuen. Halaxe izango da. Ostegun honetan urteko lehen plenoa izango da eta bertara herriko dozena eta erdi taldek babestutako mozioa aztergai izango dute. Astekariari ezarritako 10.000 euroko murrizketa bazterzea eta laguntza eguneratzea eskatuko da. Era berean, antzeko egoeran dauden gainerako elkarteekin ere jokabide aldaketa izan dezaten eskatuko diote Udal gobernu taldeari. Ikusteke dago urtarrilaren 25eko plenoak zer ematen duen, baina Aiurriko

1.066 sinadura Urnietan

Aiurri astekariaren aldeko sinadura-kanpainak herritar askoren atxikimendua jaso du. Bi asteburura mugatzea eta aurrez aurre sinadurak biltzea zen xedea. Bada, lehen asteburuan 400dik gora lortu ziren eta bigarrenaren beste 600 gehiago

aferan sustatzaileek duten babes zabala agerian geratuko da. Beste behin ere.

Milatik gora sinadura, bi asteburuko tarte eskasean

Sei mila biztanle bizi diren udalerrian milatik gora sinadura biltzea ez da oharkabean igarotzen utzi behar den gertaera. Ez, horixe. Are gehiago, sinadura bilketaren joerak jaso daitekeen kopurua handiagoa izan daitekeela iradokitzen badu. Goranzko joera izan du deialdiak, bigarren asteburuan askoz sinadura gehiago bildu delako. Lehen asteburuan, 400dik gora ziren jasotakoak. Bigarren asteburuan,



600 gehiago izan dira. Aiurriren aldeko olatua handitzen ari den seinalea da hori, beraz. Sinadurak biltzeko ekimena jardun betean amaitu da, ondorioz. Bi asteburuetan, kalean mahaia jarritz, lortu dira sinadura guztiak. Ez da online bidezko aukerarik eskaini, eta horrek jasotako si-

nadura-kopuruan eragin du. Handiagoa litzatekeelako, ziur, jasotako babesa.

Urnietako hemeretzi talde eta elkareren babesa du Aiurrik

Hauexek dira babesa eman duten taldeak: Aballarri guraso elkarte, AEK, Aurrera Markelekin, Bagara feministak, Bertso eskola, Egape Dantza Taldea, Elkartasun Ekimena, Etxeberri auzo elkarte, İnistorra Euskaltzaleak, Manttala, Onbizi, Poxta Zahar, Sorginak, SurperH, Txanbolin, UAE, Urnieta Mugimendu Sozialista, Xoxokako auzo elkarte eta Zanpatuz mendi taldea. Aiurri urnietarra baita.

Hemeroteka



JOXEBA LIZEAGA URNIETA

2004ko azaroa:

Ni ere, "la letra con sangre entra" garaietan gaztelera ikasitakoa naiz. Egurra handik, egurra hemendik, orduko maisuek "esparring" gisara erabiltzen gintuzten. Beraz "bullyna" ez da gaur egungoa, nola deitu bestela harropuz haiek gurekin egiten zutenari?

Orain, Urnietan gauza mordo egiten da euskararen alde, salbu eta beharrezkoa den bakarra, erabili. Sarritan, gure artean bizi den gehiengoak horrela eskatuta, gaztelez egin izan ditugu herriko ikastetxeetako gurasoen bilerak edota erraustegiaren aurkako batzarrak, bi adibide jartzearen, bilerak gehiegi ez luzatzeko aitzakia merkearekin. Eta gu, Urnieta euskaldunok, demokraziaren izenean, isilik. Gure arbasoak odol berokoak omen ziren, baina ondo epela da gure arteria eta zainetatik dabilena!

Euskara hiltzera doala? Ez, euskara ari dugu urkatzen, itotzen. Torturatzen. Eta egoera deskribatzen ari naiz, juzgatzen baino.

Azken zapi urte hauetan Urnietan badugu hilabetekari elebidun bat, oraindik pluraltasunaren iturrietatik edaten ikasi ez duena. Ez dakit euren inposaketatik edo eta gainontzekoen utzikieratik. Eta orain ate-joka etorri zaigu Aiurri bi zulo estaltzeko asmoarekin, pluraltasunarena eta euskararena, ez da lan makala izango.

Kopeta zimurtzeko arrazoirik falta ez baldin bada ere, irrifarbo bat dibujatzen da nire aurrepian Aiurri jasotzen dudanean, gure adimena apur bat elikatzeke balioko duen esperantza dudalako.

Beraz,... Aiurri? Nik ere, BAI!!!

Emaile fidelei aitortza

Odola emateko txanda zen astelehenekoa urnietarrentzat, urteko lehena. Elkartasun-ekintza horretan nabarmendu diren zenbait odol-emailerri aitortza egiteko probestu zuten antolatzaileek

Xabier Lasa URNIETA

Bertan izan zen Jorge Segurado alkatea eta eskerrona adierazi zien, herriaren izenean. Hona-koak, omenduak:

- 25 aldiz odola emategatik: Maria del Mar Costoyas Mendez, Alain Paulis Garmendia eta Angel Maria Santamaria Mendez.
- 50 aldiz odola emategatik: Jose Antonio Rosco Rosco, eta, Fermin Zinkunegi Urdanpilleta.
- 75 aldiz odola emategatik: Ildefonso Pascual Garcia.



Astelehen arratsaldean egin zuten diploma banaketa. ODOL-EMAILEAK



AIURRI

Denboraldiko lehen sariduna

Abiatu da Egunean Behin lehiaketa ezagunaren denboraldi berria, eta "Aiurri" taldean lehen asteko sariduna "Peru" izan da. Urtarrilak 15-21 asteko 7 partidak jokatu zituen, eta ehunka lehiakide dituen Aiurri taldean 63. postuan sailkatu zen. Asteartean, Arruti gozotegiko saria jaso zuen, Kale Nagusiko negoziolan bertan. Zorionak eta on egin!

KOMUNITATEA

MINTZALAGUNAK ANDOAIN

Irteera, Mintzalaguna ekimenaren eskutik

“Garuna(k)” erakusketa ikusteko San Telmo museora bisita gidatua antolatzen du Andoaingo Mintzalagunak, euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak euskaraz hitz egiteko ohitura ez duten pertsonekin elkartzea datzan ekimenak. Urtarrilaren 27an egingo da bisita, ostiralarekin, eta Renferen herriguneko geltokian jarri dute hitzordua,

goizeko 10:00etan. Honako telefono zenbakira mezua bidali beharko dute irteeran parte hartu nahi duten interesatuek: 662 132 558.

Erakusketa, hiru eremuetan egituratu dute, San Telmo museoan: Materia, Adimena eta Beste adimen batzuk.

Museoko arduradunek adierazi dutenez, erakusketak “Garunaren anatomian zein

horrek sortzen duen guztian barneratzen gaitu: kontzientzian, pentsamendu abstraktuan, hizkuntzan, irudimenean, ametsetan edo memorian”. Gaineratu dute gizakiaz haraindiko beste adimen batzuk ere aztergai direla: “adimen artifizialak, animalienak eta kolektiboak eta burmuinik gabeko organismoenak”.

GORA ETA BEHERA



Babes zabala

Urnietak sei mila biztanle inguru ditu, eta adin nagusikoak diren guztien artetik 1.066 bizilagunek sinadura eman izana oso kontutan hartu beharreko datua da. Sustatzaileek amaiera eman diote ekimenari eta ostegun honetako plenoan lortutakoaren berri emango diete udal ordezkariari, Aiurrik merezi duen babes aldarrikatzearekin batera. Eskertzekoa da ekintzaileek hartutako lana.



AIURRI

guzotegia **arruti** pasteleria

Etxeko obradorea
Enkarguak jasotzen ditugu

Egunean Behin 14D
denboraldi berriko babeslea

Babeslea:
egunean behin

Zumea 18, ANDOAIN
943 593 777



Elizaren atzeko egurrezko ateko egurra txikitu zuten, eskua sartu ahal izateko.



Lapurrak barruan zirela, Sagrarioa txikitu zuten barruko bi kopa lapurtzeko.

Lapurreta egin zuten Santa Krutz elizan, joan den ostiralean

Eragin eta kalte handiena ateetan izan da, txikitu dituztenak bat baino gehiago direlako

Xabier Lasa ANDOAIN

Azken asteotan lapurreta saia-kerak egin dira herriguneko denda eta merkatalguneetan.

Kale Nagusian, gainera, eliza izan da lapurren jomugan egon den gunetakoa. Joan den ostiralean, gauez, zubitik gertuen

dagoen elizaren atzeko aldetik sartu ziren, atearen ezker aldeko egur zatia txikituz. Bertatik sartu eta barruan Sagrarioa zegoen tokira hurbildu ziren. Ate-txoa txikitu eta bertan zeuden bi kopak lapurtu zituzten. Elizatik sakristiara daraman atetxoa ireki zuten baina bertatik ez zuten balio handiko objekturik lapurtu. Iñaki Zabaleta apaizak Aiurriri adierazi dionez, lapur-

tutako bi edalontziek ez dute balio ekonomiko handirik. Bai, aldiz, balio sinboliko nabarmena. Herriguneko kristau komunitatearen liturgietarako ororako erabiltzen baitziren bi edalontziak. Eragin eta kalte handiena atean eragin du astebarruko lapurretak. Egun hauetan horiek konpontzeko lanean ari dira, besteak beste, aseguru-etxeekin harremanetan jarritz.

POSTONTZIA

C2-AK KALTETUTAKOEN PLATAFORMA
ANDOAIN

Bizilagun hori

Andoaindar hori: zuregana jotzen dugu jakinarazteko urtarilaren 27an, larunbatarekin, 11:30ean Bordaberri industrialdean elkartuko garela, auto karabana baten bidez andoaindarrentzako proiektu alternatibo duin bat aldarrikatzeko.

Ekar ezazu zure banderola. (Iturri eta Belkoain tabernetan eta Coviran, Ernaitza, Gorostidi, Stop, Telletxea eta Revívelo Arreglos dendetan, salgai). Ez delako trafiko arazo bat soilik. Politikari eta erakunde publikoei ikuspegi zabala eskatzen diegu, konponbide integral baten alde egiteko, andoaindarrei bizkarra emango ez diena. Andoain bizirik!

ZAIN DUGU AGATE DEUNA!

Urteroko usadioari helduko diogu eta berriro Andoaingo kale eta plazetan barrena ibiliko gara.

IRTEERA:

- Otsailak 4, igandea. **18:00**
Doktor Huitzi kalea, 15. Bazkunaren egoitza.



Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Duela sei urte egin zuen jauzi lehen aldiz, Atlantikoko ozeanoaz bestalde, Lorena Busto Romero urnietarrak, Mexiko Hirian lur hartzeko. Xalapan (Veracruz) bizi da orain, askotariko musika-melodiek bat egiten duten hirian.

Azken urteetan, joan-etorrian aritu zara Urnietatik Mexikora eta bueltan. Zein harreman daukazu herrialde horrekin?

Orain sei urte, 2018an, Psikologiako unibertsitate graduaren hirugarren maila gauzatzera joan nintzen, Mexiko Hiriko Universidad Nacional Autónoma de México (UNAM) delakora. Gurasoen etxetik kanpo bizi nintzen lehen aldia izan zen eta, egia esan, neure burua hobeto ezagutzeko aukera eman zidan esperientzia horrek. Bestalde, bertako ohituren berri izan nuen, herrialdearekin maitemintzeraino. Pertsona asko ezagutu nituen, horien artean, pare bat urtez, nire bikotekide izan zena. Hori dela eta, bigarren aldiz, Mexikora itzultzea erabaki nuen, unibertsitate-ikasketen azken txanpa, praktikak, bertan egiteko asmoz; umeekin zein nerabeekin egin nuen lan.

Koronabirusaren pandemia Saltillón pasa nuen, Coahuilako estatuan, Mexiko iparraldean. Urtebete bertan egon ondoren, Urnietara itzuli nintzen, arrazoi pertsonalak medio, baita gertukoekin eta lagunekin egoteko ere. Dena dela, Euskal Herrira bueltatu naizen aldiro, Mexikon bizi nahi dudala sentitzen dut. Nire etorkizuna bertan irudikatzen dut. Urnietan sentitzen ez dudun askatasuna daukadala uste dut, eta horregatik ibili naiz joan-etorrian azken urteotan.

Gaur egun, ez zara ez Mexiko Hirian, ez Saltillón (Coahuila) bizi, Xalapan (Veracruz) baizik.

Lehenago ez nuen inolako harremanik gaur egun etxe dudun hiri horrekin. Behin unibertsitate gradua bukatuta, eta, Mexikora itzultzeko asmoarekin, beste ikasketa batzuei ekitea erabaki nuen: Hizkuntzaren Antropologia. Interneteko bilaketan, Veracruz estatuko unibertsitatea agertu zitzaidan. Hala, Xalapa zuen kokaleku lizentziaturak. Hori horrela, sarbide-azterketa egin, hegazkineko bidaia-txartelak erosi eta hantxe

“Musikari asko dabil Xalapakako kaleetan”

LORENA BUSTO ROMERO ABESLARIA

Mexikoko Veracruz estatuan bizi da Lorena Busto Romero. Xalapakako kaleetan ezaguna da, jada, bere ahotsa



“Urnietan sentitzen ez dudun askatasuna daukadala uste dut, eta horregatik ibili naiz joan-etorrian azken urteotan”. BUSTO

abiatu nintzen. Bertan bizi naiz, gaur egun.

Zein motatako hiriarekin egin zenuen topo?

Itsasotik, Mexikoko Golkotik bi orduetara kokatzen da Xalapa, herrialdearen erdialdean, gutxi gorabehera. Iritsi bezain pronto jabetu nintzen ez zela Mexiko Hiria bezain handia. Mendiarekin kokatzen da eta kale estu asko ditu. Harrituta gelditu nintzen klimarekin, Euskal Herriko ezaugarri antzekoak baititu. Bertan, sirimiriari, esaterako “chipi-chipi” deitzen zaio. Herrialdearen beste toki batzuetan baino zertxobait “itxiagoak” iruditu zitzaizkidan Xalapan herritarrek, eta hizkera ezberdina darabilte, doinuari dagokionez. Herrialdearen barruan askotariko doinuak dituzte, tokiaren arabera asko aldatzen baita hitz egiteko modua. Hiriak musikarekin harreman berezia duela jabetu nintzen denborarekin. Musikari asko dabil Xalapakako kaleetan. Bertakoa da son jarocho generoa. Antzekotasunak ditu flamenkoarekin: honetan ere takoiz jotzen da jaranarekin lagunduta. Jantzi bereziak ditu.

Aspalditik duzun musikazaletasunera gerturatu zintuen hiriak duen kutsu artistikoak.

Txikitatik izan dut gogoko abes-tea, emozioak askatzeko nahiz adierazteko bide izan baitut musika. Etxean eta eremu intimoetan abestu izan dut beti, eta, Xalapa iritsi bezain pronto, are gehiago piztu zitzaidan kantatzeko gogoak: kalean abesten hastea erabaki nuen.

Kalean jendaurrean kantatzearekin amets egin izan duzu maiz eta Xalapak fantasia gauzatzeko aukera eman dizu.

Txikitatik izan dut amets hori, baina, esan bezala, pixka bat ezkutuan eduki dut urte luzez. Hizkuntzaren Antropologia lizentziatura hasi nuen, eta egunerokoari eusteko lana topatu behar nuela ikusi nuen. Horrela, kalean musikari asko zebilen, eta, horietako batean, bi gazterengana hurbildu nintzen, beraien kanta bat jotzeko pro-

"XALAPARA IRITSI BEZAIN PRONTO PIZTU ZITZAIKAN KANTATZEKO GOGOA"

posamena luzatzeko: Luis Miguelen "La Bikina". Beraiek lagundu zidaten soinu-ekipoa erosten eta mundu horretan murgiltzen.

Horrela, kalera atera nintzen abestera, baina ez zen bateragarria unibertsitate-ikasketekin, azken horiek konpromiso dezente eskatzen zutelako. Bata edo bestea hautatu behar nuela sinetsita, musikari eustea erabaki nuen. Orain ia egunero ateratzen naiz kalera, abestera. **Lehen aldiz, beraz, bi gazterekin abestu zenuen kalean. Konplizitatea sortzen al da kalean musika egiten zabilzatenon artean?**

Bai, guztiok ezagutzen dugu elkar, gainera. Konplizitatea bai, baina baita lehiakortasuna ere, izan ere, gehienok lan gisa ulertzen dugu.

Gogoan al daukazu zu zeu bakarrik mikrofonoa eskuan kalera ateratzin lehen unea?

Oso urduri nengoen, eta ez nukan oso argi zer ari nintzen egiten. Segurtasun eza sentitzen nuen, kalean dabilen jendeak ni bertan egotea gaizki hartuko zuenaren beldurraz.

Egunetik egunera, asko aldatu al da zure egoteko modua jendaurrean abestean?

Kalean segurtasun handiagorekin egoten lagundu dit praktikak. Bestalde, bultzada ematen dizute, modu berean, paretik igarotzen diren pertsonen erreakzioek. Behin, adibidez, entzule bat gerturatu zitzaidan, nire musikarekin, bere haurtzaroko bizipen batzuk gogora ekarri zituela esateko. Bestela, entzuteko hain atseginak ez diren komentarioak ere jaso izan ditut. Horiei dagokien tokia, dagokien neurria ematen ahalegintzen naiz.

Abesti ezagunak kantatzen dituzu, euskaraz, gaztelaraz eta ingelesez. Euskaraz, baten bat aipatze aldera, Olatz Salvadorren "Korapilatzen" edo Mikel Laboaren "Txoriak txori" abesten ditut. Gehienbat gaztelaniaz kantatzen dut, ama hizkuntza dudalako: Zahararen "Con las ganas", Mercedes Sosaren "Alfonsina y el mar", Natalia Lafourcaderen

"AHOTS BAKOITZA BAKARRA DA. OSO GUSTUKO DUT INPROBISATZEA"



Kalean abesteko baimenei dagokionez, Mexikon ez dira horren zorrotzak. BUSTO



Xalapa hirian ia egunero kantari aritzen da urnietarra. BUSTO

"Soledad y el mar". Ingeleseztan, besteak beste, 4 Non Blondes taldearen "What's Up?" (Youtube ikusgai da bere bertsioa), The Cranberries-en "Zombie", Radiohead-en "Creep"... Estilo asko ukitzen ditut, baina pop-rockean, troban, folkean eta bluesean mugitzen naiz erosoan.

Bideoak ditut grabatuta eta ikusgai daude Instagramean (@lorrainebusto) eta Facebooken (Lorraine Busto).

Tarteka, kanta batzuetan, melodia zeureganatzen duzu eta jolastu egiten duzu jatorrizko abestiarekin. Ahots bakoitza bakarra da. Horrela, oso gustuko dut inprobisatzea, baita horrek dakarren guztia ere.

Ezin dugu aipatu gabe utzi Tarima Latina.

Ekoiztetxea da Tarima Latina. Xalapako artista emergenteei laguntzeko asmoz sortu zen orain zortzi hilabete, gutxi gorabehera. Bertan, ikus-entzunezkoak ekoizten dira eta bere kanaletan zabaltzen du edukia: Youtube, Tik-tok, Instagram eta Facebook. **Zure bidean aurrera egin asmoz, orain gutxi, gainera, klaseetan izan zara, ahotsaren teknifikazioari eta proiektzioari begira.**

Berez, ez ditut horrenbeste klase jaso. Etorkizunean, formakuntza sendoa izatea da nire helburua. Abesteko teknika ezagutzen lagundu zidaten klase horiek, kantatzen ari garenean nondik egiten dugun kontuan hartu behar dugulako, arnasketari erreparatu behar diogulako. Bestela, tentsio handia pilatu daiteke gorputzeko zenbait atalengan, lepoan, adibidez. Aurrera begira lesioak sortu daitezke, zainketarik ematen ez bada.

Garrantzitsua da zure burua osotasunean zaintzea: ondo egin lo, alkohola eta horrelako substantziak ez hartu, ur asko edan, elikadura osasuntsua mantendu... Modu integralean egin behar da zainketa.

Hilabete inguru izan zinen Euskal Herrian, urte amaieran, bisitan. Eta kalean abestera animatu zinen, Donostian. Xalaparekin alderatuta, zertan izan zen desberdina esperientzia?

"DOINU BERRIAK EKARRI DIZKIT MEXIKOKO MUSIKA-ESPERIENTZIAK"

Hasiera batean, beldur pixkat bat ematen zidan, hemengoa naizelako eta esperientzia bakarra kanpoan izan dudalako. Lagungarria zitzaidan, Mexikon, guztiz ezezaguna izatea. Egunek aurrera egin ahala, ordea, aurre egin nion urduritasun horri eta, bai, ezagunen bat edo beste ikusi nuen Donostian abesten nabilela. Baimenei begira, zorrotzak dira eta beharrezkoa da baimena edukitzea, kalean kantatu ahal izateko. Bi denboraldi daude, altua (udako oporraldia, Gabonak...) eta baxua. Lehenengo kasuan, zure ordutegi zehatza eskatzen dizute, agenda bat osatze aldera, kalera aterako diren gainerako artistekin denbora eta espazioa kudeatzeko. Mexikoren kasuan, ez dira horren zorrotzak. Kontxa pasealekuan izan naiz, baita Boulevardrean ere.

Zein erantzun jaso duzu jendearen partetik?

Oso positiboa izan da erantzuna. Komentario politak jaso ditut abestu bitartean. Emakume batek, esaterako, bestelako erreperitorioa nuela aipatu zidan. Izan ere, doinu berriak ekarri dizkit Mexikoko musika-esperientziak. Hala, jendearen jakinmina piztu dute Euskal Herrian Xalapan ikasitako melodiek.

Mexikon zara gaur egun. Pixkanaka orain arteko bidean sakontzeko asmoa al duzu?

Formakuntzarekin jarraituko dut, seriotasun handiagorik, akademia batean. Bestalde, interpretazio-klaseak jasotzea ere gustatuko litzaidake. Formakuntza jasotzeko toki aproposa da Xalapa, baina, aurrera begira, beste hiri batean ikusten dut neure burua, Mexikon bertan edo baita kanpo ere.

Noizbait entzungo al dugu, bertsioez gain, Lorenaren abestirik?

Izugarri gustatuko litzaidake. Oraindik ez naiz ausartu berezko zerbait sortzen, beldur pixka bat ematen dit eta. Era berean, konposizioari buruzko ezagutza handiagoa ere behar dut. Horrenbestez, esan bezala, formakuntza jaso ahala etorriko dira bide berriak.

"FORMAKUNTZA JASO AHALA ETORRIKO DIRA SORKUNTZARAKO BIDE BERRIAK"



Pirritx, Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore, Bastero Kulturgunean. AIURRI

Alboan GKErekin elkarlanean ondutako ikuskizuna

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek "Ez gara jaitsiko" ikuskizuna taularatu zuten, Basteron

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Ingurumenaren aldeko mezu argia zabaldu dute pailazo ezagunek, muntaia berrian. Azaroan egin zuten aurkezpena, eta gerotik Euskal Herrian barrena taularatu ari dira. Aurreko larunbatekoa, gainera, bidez grabatu zuten. Mixel Ducauren "Lurra" kantu ezaguna abiapuntutzat harturik, amalurraren aldeko ikuskizuna eskaini zuten Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek. Bi saioak ikuslezt bete zituzten, eta aurrerago emanaldiak bidez ikusi ahal izango dira. Indigenak, animaliak, lurra suntsitzen ari diren pertsonaia, Pupu eta Lore... Pertsonaia ugari igo zen taulagainera.

Alboan fundazioarekin elkarlanean jardun dute, muntaia berria prestatzeko garaian. Jesusen Lagundiak Euskadin eta Nafarroan duen nazioarteko garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundea da.

Beren aurkezpen-txartela hau xe da: "Munduan desberdinke-riak sortzen dituzten bidegabe-keriak salatuko dituzten herri-tar globalak prestatzeko lan egiten dugu". Basteron aurkeztu zen pailazoen ikuskizunari helduz, hauexek Alboan fundazioaren adierazpenak: "Duela urtebete Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoekin abenturari ekin genion eta ipuin-diska ilustratua aurkeztu genuen. Leire Bilbaok idatzitakoa, Irrimarrak ilustratua eta Xabier Zabalak konposatutako abestiekin. Herri, eskola eta etxe-ko txikiekin zuhaitzeta igo ginen eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin batera Euskal Herri-ko Amazoniara abiatu ginen, ipuina eta berau laguntzen duten abestiak abiapuntu, naturaren zaintza, hiritartasun globala, genero ikuspegia edota Giza Eskubideen gaietan sakontzeko".



Katxiporretako eta Alboan fundazioko ordezkari bana, taula gainean. AIURRI



Ikusle ugari bertaratu zen Sarobe antzokira, aurreko igande arratsaldean. AIURRI

Erakustaldi tekniko analogikoa Laika antzezlanean

Sarobe antzokira hurbildu zen ikusle goi mailako antzezlanaz gozatu ahal izan zuen

Jon Ander Ubeda URNIETA

Erakustaldi aparta eskaini zuen Badalonako antzerki konpainiak. Istorio on bat, muntaia eraginkorra eta teknika erakustaldi aparta. Akaso ahaztu dugu bazela garai analogikoa. Iraganeko kontuak dira, bai. Aro digitalean bizi izanagatik ere, Xiri-quiteulakoek mundu magikoan murgildu zuten ikusle goi mailako antzerkiaren teknika analogikoa erabiliz.

Espazioaren konkistaren historian Laika aski ezaguna da. Lehen izaki biziduna izan zen espaziora irteten, eta hura bilakatu zen antzezlanaren protagonista nagusia. Gerra hotz betean, AEB eta Errusia nor baino nor aritu ziren lehian. Trama Errusian kokatzen da, kalean bizi den zakurrak ejerzitoarentzat lan egiten duen emakumearen arreta bereganatzen duen unean hasita. Antzezlanak espaziora irteteko prozesua jasotzen du, bi protagonisten arteko adiskide-

tasunean sakontzen duen bitartean. Benetako Laikaren amaiera ezaguna zaigu denori. Espazio-ko lehen bisitari hilda lurre-ratu bazen ere, antzezlanean ez diote iskin egiten amaiera horri. Beti gogoan izango du emakumeak behinola kalean ezagutu zuen animalia azkarra eta bizia.

Antzezlanak, bere osotasunean hartuta, erakustaldi aparta da. Batetik, teknikari dagokionez. Bistara baitago lan tekniko guztia: irudiak eskaintzeko elementu analogikoak eta haien erabilerak, argi eta hotsen kontrola taulagainean bertan. Eta, bestetik, aktoreen lanari dagokionez. Askotariko paperak bata bestearen atzean betetzeko erakustaldia izan zen. Guztien artean, zakurrari bizitza ematen dion aktoreari aipamen berezia zor zaio. Hotsen eta mugimenduen bitartez, benetako zirudien!

Gogoan iltzatuta geratzen da Laika antzezlanak.



Laika txakurrak bizia hartzen duen aktorearen eskuetan. AIURRI

Basteroko tabernaren esleipena martxan da

Proposamenak aurkeztu daitezke dagoeneko, otsailaren 19ra bitarte

Erredakzioa ANDOAIN

Abenduaren 16an itxi zituen ateak, hasiera-hasieratik taberna-jatetxearen ardura beregain hartu zuen arduradunak.

Bastero Kulturguneko ostalaritza-gunea kudeatzeako prozesu berria abiatu du Andoaingo Udalak. Zerbitzu kontratu bidez egingo da, eta, eta legeak dionari jarraiki, bi urterako lizitazioa izango da, beste bi urterako luzagarri izango delarik.

Proposamenak aurkeztu daitezke dagoeneko, eta otsailaren 19a izango da horretarako azken eguna. Prozesua abiatu nahi izanez gero, edo edozein zalantza argitu nahi izanez gero, Udaleko Kontratazio zerbitzuarekin jarri daiteke harremanetan, telefonoz honetara deituz: 943 300830.

Musika klasikoa, zuzenean Basteron

Batura Zikloaren baitan Natalia Tchitch eta Gloria De Piante Vicin hurbilduko dira Andoainera

Erredakzioa ANDOAIN

Natalia Tchitch errusiar jatorriko musikaria da, eta biolaren ariko da Andoainean. Gloria De Piante Vicin italiarra, aldiz, piano-jotzailea da. Datorren otsailaren 2an emanaldi eskainiko dute Basteroko ekitaldi aretoan, iluntzeko 20:30ean hasiko den emanaldian. Zikloak euskal musika klasikoa nazioarteko erreperorioarekin batera uztartzea du helburu.



KORRIKAko ordezkariak eta unitate didaktikoaren egileak, aurkezpen-ekitaldian. AEK

Unitate didaktikoa aurkeztu dute

KORRIKA ate joka den honetan, Euskal Herri osoko eskoletara ailegatu nahi du AEK-k, Ikastolen Elkartearekin elkarlanean. Hala, aurreko edizioetan bezala, unitate didaktikoa sortu ditu, martxoaren 14tik 24ra igaroko den euskararen lasterketa erraldoiaren harira

Alba Cabrera Jauregi ESKUALDEA Adinaren arabera sailkatu dituzte edukiak, Haur Hezkuntzatik Batxilergora bitarte, eta, jada, eskuragarri daude KORRIKAren webgunean. Berrikuntzak berrikuntza, ekimenak betiko xede berberak mantentzen dituela iragarri du AEK-k, Iñaki Zapirain Orereta ikastolako irakasle eta unitate didaktikoen egilearen hitzetan: “Euskararen aldeko jarrera zabaltzea, euskararen aldeko kontzientzia suspertzea zein erabileran eragitea; eta, nola ez, KORRIKA ezagutaraztea”.

Gutxi gorabehera, bi asteko iraupena hartzen duen proposamena luzatu du AEK-k, eta ez, soilik, “Euskara” irakasgaiari lantzeko, beste hainbat arlotatik ere erreparatu dakiokelako eskaintzari, esate baterako, “Gor-

putz Hezkuntzan”. Mailaren araberako sailkapena egin dute, adin bakoitza hobekien egokitzen zaion jarduerara bideratzeko asmoz: Harro unitatea (3-6 urte bitartekoentzat), Herri unitatea (6-9 urte bitartekoentzat), Orro unitatea (9-12 urte bitartekoentzat), Korri unitatea (12-18 urte bitartekoak). Hala, lehen bi unitateak ikasgelako arbelean proiektatzeko pentsatuta daude. Azken biak, ordea, nork bere ordenagailu eramangarrian egiteko diseinatu dira.

Irakasleei begira

Ikasleei ez ezik, irakasleei ere zuzenduta daude unitate didaktikoak. Hori horrela, unitate bakoitzari dagokion gida deskargatzeko aukera daukate, jarduerak gauzatu ahal izateko argi-

bideekin. Petoa, lekukoa, ibilbidea, mezua... Aski ezagun bilakatu diren jokuez gain, berrikuntzak txertatu dituzte aurretan. “Ispilu harrogarria” Goiatz Labandibarren ipuin batek emango die lotura ekintza horiei guztiei. Ipuineko protagonistak Nora eta Harri izeneko bi ume dira, eta, edizio honetako leloari erreferentzia eginda, hainbat gairen gainean hausnartzeko parada izango dute ikasleek: lotsari buruz hitz egitea, harro sentitzearen garrantzia... Lur Kortak egin du ipuinaren kontaketa. Bestalde, eskaintza zabaldu du AEK-k, euskarara zein euskal kulturara gerturatzeaz gain, KORRIKAren ia mende erdiko ibilbidea gertutik ezagutzeko, galdera-erantzunekin, musikarekin zein dantzekin.

Martxoaren 19an eta 23an, gurean



Produktu-sorta zabala dago aukeran, webgunean. AIURRI

Arropa Andoaingo eta Urrietako euskaltegietan arropa erosteko aukera dago. Ostegun eguerdira bitarte Urrietako elkartearen etxean postua ipini du AEK-k. Andoainen, bestalde, euskaltegiko sarreran dago postua. Online bidezko erosketak egiteko aukera badago.



KORRIKA batzordekoak arropa salmentan, 2019ko udan. AIURRI

Batzordea Behin ez, birritan igaroko da lasterketa erraldoia Urrietatik: martxoaren 19an eta 23an. Hala, KORRIKA Batzordea sortzeko deia luzatu du Urrietako AEK-k: otsailaren 6an, asteartearrekin, 18:00tan izango da bilera, herriko euskaltegian.



Banderolak, KORRIKAren ikur. AIURRI

Atal berezia Aiurri Aiurri.eus guneak tarte berezia eskaini dio KORRIKAri. Euskararen aldeko ekimen paregabea da, eta dagoeneko bertan aurki daitezke bi herrietako ordutegiak eta beste hainbat albiste gehiago ere.

Mugitu zaitetz!

Jarduera Fisikorako Orientazio Zerbitzua (doakoa)

Ibili. Korrika egin. Dantzatu. Jolastu. Zein da zure mugimendua?

Ez dago dieta edo terapia farmakologikorik aldi berean, albo-kaliterik gabe eta hain merke, jarduera fisikoaren zuzeneko eta zeharkako onurak sortzen dituenik.

1 **Jarduera fisikoa bihotza, gorputza eta adimenarentzat ona da.**



2 **Jarduera fisikoaren edozein neurri ezer baino hobea da, eta zenbat eta gehiago egin, orduan eta hobea.**



3 **Edozein jarduera fisikok balio du.** Jarduera fisikoa lanean, kirol eta jolas-jardueretan edo joan-etorrietan txerta daiteke, baita eguneroko eta etxeko lanetan ere.



4 **Giharrak indartzea onuragarria da pertsona guztientzat.** 65 urtetik aurrera, orekari, koordinazioari eta giharrak indartzeari lehentasuna ematen dioten jarduera fisikoak sartu beharko genituzke, errikoak saihesten eta osasuna hobetzen laguntzeko.



5 **Sedentariismo gehiegi txarra izan daiteke. Jarduera fisikoa da sendagairik onena.**



6 **Pertsona guztiak balia daitezke jarduera fisikoa areagotzeaz eta ohitura sedentarioak murrizteaz.**



Biztanleria ez aktiboari zuzendua

Anbulatorioa
943 006 670
OSTIRALA
09:00-12:00

Arrate Frontoia
943 300 147
OSTIRALA
12:00-13:00

Allurralde Kiroldedia
943 300 147
ASTEARTEA
19:00-20:00



Arantxa Uranga, Jaurilaritzako Osasun Publikoko teknikaria.



Andoni Alvarez Andoaingo alkatea.

Ekimen partekatua

ANDOAINGO UDALA

"Jarduera fisikoa modu erregularrean egiteko ohitura hartzen joateko helburuarekin abiatu dugu egitasmoa"

OSASUN SAILA

"Urteak daramagu sedentariismoari aurre egiten. Ikuspegi komunitarioa izatea garrantzitsua da".

MUGIMENT EGITASMOA

"Orientazio zerbitzu honek planifikazio pertsonifikatua eskainiko du, baita jarraipena egin ere".

FORU ALDUNDIA

"Bizitza aktiboagoa izateko arazoak dituzten pertsonen laguntza, eta orientazioa ematen dien zerbitzua da".

Eredakzioa ANDOAIN

Martxan da Mugi Zaitetz! egitasmoa. "Zerbitzu honen helburu nagusia sedentariismoa ohituta dauden herritarrei bizitza aktiboagoak sustatzean datza. Zerbitzu honetara hurbiltzen diren herritarrek jarduera fisikoa egiteko beharrezko aholkularitza, gida eta laguntza jasoko dute, jarduera fisikoa modu erregularrean egiteko ohitura hartzen joateko helburuarekin", iragarri zuen Andoaingo alkatea. Aurreko ostegunean egin zuten aurkezpen-ekitaldira erakundeetako ordezkariak zabala hurbildu zen. Arantxa Uranga Eusko Jaurilaritzako Osasun

Publikoko teknikariak alor honetan egindako ibilbidea azaldu zuen, eta Andoainek bat egiteko pausoa eman duelako herria zoriondu zuen Malen Azua Mugiment egitasmoko teknikariak. Marta Pastor Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol zuzendariak populazio osoa aintzat hartzen dela nabarmendu zuen.

Zerbitzuaren xehetasunak

- Orientatzailea: Ion Leone.
- Doakoa izango da.
- Hitzordua eskatu beharko da Osasun zentroan (943 006 670), Arrate Frontoian (943 590 174) edo Allurralde Kiroldedian (943 300 014).

Ariketa fisikoa egitea ohitura bilakatu dadin

Jarduera Fisikoan orientazioa jasotzeko zerbitzua aukera izango dute andoaindarrek, Andoaingo Udalaren eta Osasun Etxearen artean elkarlanean garatutako ekimenari esker. Doako zerbitzua izango da, eta interesatuak aurretik hitzordua hartu beharko du



Marrazoan artean egin zuten aurkezpen-ekitaldia. AIURRI

Masters txapelketa, asteburuan hasita, Galarretan

Ansa, Juanenea, Azpiroz eta Barrenetxea izango dira txapelketako erremontistak

Erredakzioa URNIETA

Urrizak ez du txapelketan parte hartuko, baina datozen txapelketetan izango dela aurreratu dute. Txapelketa larunbat honetan hasiko da, Azpiroz eta Barrenetxearen arteko norgehiagokarekin. Txapelketa urtarriaren 27tik otsailaren 24ra bitarte jokatu da. Barrenetxearen eta Azpirozaren arteko lehiarekin ekingo zaio txapelketari, urtarriaren 27an. Irabazlea ligaxkara pasako da, non, Juanenea eta Ansa II.a sailkatuta dauden; galtzailea kanporatua izango da.

Ligaxka otsailaren 3an, 9an eta 17an jokatu da, hiru jardunalditan. Fase horretan, lehen bi erremontistak finalera sailkatuko dira eta hirugarrena kanporatua izango da. Final handia otsailaren 24an jokatu da.

Ligaxka 30 tantotara jokatu da. Irabazleak 4 puntu lortuko ditu, 29 eta 27 tanto artean geratzen denak bi puntu, 26-24 tanto artekoak puntu bat, 23-17 tanto artean egiten duenak ez du bat bera ere lortuko. 16 tanto edo gutxiago egiten dituenak puntu negatiboa izango du.

Leizaran Lanbroa, asteburuan etxean

Aurreko bi jardunaldiak etxetik kanpo egon ostean, elkarren aurka ariko dira sailkapeneko 4. eta 5. sailkatuak.

Urnieta eta Euskalduna, biak, etxean

Futbolean, gorengo mailan, hau xe asteburuko jardunaldia: Urnieta-Allerru eta Euskalduna-Urki.

Padel ikastaro berriak egingo dira Urnietako kiroldegian

Gazteentzako eta helduentzako ikastaroak antolatu ditu Urnietako Udalak

Erredakzioa URNIETA

Gazteentzako eta helduentzako ikastaroak dira, 12-16 eta 16 urtetik gorakoentzat. Kiroldegiko harreran eman beharko da izena, datozen egunotan.

Ikastaroek 12 saio trinko izango dituzte, eta bi mailatan egituratuko dira, parte-hartzaile bakoitzaren beharretara eta trebetasunetara egokituta. Batetik, kirolean sartu eta padelaren oinarritzko arauak, teknikak eta oinarritzko mugimenduak ikasi nahi duenarentzako aproposa den ikastaroa izango da. Bestetik, teknifikazioari bideratutakoa. Hau da, kirolari buruzko oinarritzko ezagutzak dituzten eta pistako teknika, taktika eta errendimendua hobetu nahi duten jokalarientzat diseinatua.

Helduen ikastaroa otsailaren 5ean hasiko da eta martxoaren 1era arte luzatuko da. Asteazken eta ostiraletan 19:00etatik 20:00etara hastapen-mailako ikastaroa eta 20:00etatik 21:00etara teknifikazio-mailakoa.

Gazteentzako ikastaroa, berriz, otsailaren 6an hasiko da, eta martxoaren 1ean amaituko da. Talde honentzako saioak astearte, ostegun eta ostiraletan izango dira, 17:15etik 18:15era.



AIURRI

Zanpatuz taldearekin eski-irteera

ESKIA Luz-Ardidenera egingo du irteera Zanpatuzek. Hala, martxoaren 2an, larunbatarekin, eskiatzera zein snowboard egitera joateko aukera izango dute herritarrek. Idiazabal kaleko Matxon eman behar da izena. Egunean bertan, 05:45etan abiatuko da autobusa Matxo taberna paretik. Itzulera, aldiz, iluntzeko 19:00tan izango da. Busaren prezioa 20 eurokoa da.



EUSKALTEL

Mikel Iturria lehiari murgildu da

TXIRRINDULARITZA Euskaltel-Euskadi taldea Mallorcako Txallengeko 1.1 mailako bost probatan lehiatuko da aste honetan. Mikel Iturria urnietarra ostegunean, larunbatean eta igandean lehiatuko da. Batz bestea, 150 eta 180 kilometroko lasterketak dira. Hasiera ematear da, beraz, Iturriak profesional mailako denboraldi berriari.

kutxabank
MASTERS
TXAPELKETA 2024

URTARRILAK 27 LARUNBATA 16:30EAN
GALARRETA - JAI ALAI BERRANI

1. PARTIDUA (2 SETENA)
GOIKOETXEA V - LARRAÑAGA VS
JABALERA - JUANENEA

2. PARTIDUA (20 TANTO)
BARRENETXEA IV VS AZPIROZ

3. PARTIDUA (2 SETENA)
URRIZA - ZUBIRI VS
EZKURRA II - ZALDUA

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 25

URNIETA Korrika

Arropa salgai egongo da.
11:00-15:00, *Elkarteen Etxea*.

ANDOAIN, URNIETA Plenoa

Osoko bilkurak.
19:00, *Udaletxea*.

ANDOAIN Erakusketa

Jon Juarez ilustratzailea.
Bastero.

URNIETA Lehiaketa

Antia literatur lehiaketa martxan da.
Oinarriak: Urnieta.eus.

OSTIRALA 26

URNIETA Txotx garaia

Eula sagardotegiaren irekiera.
Urtarrilaren 26an hasita.

LARUNBATA 27

ANDOAIN Puska Biltzea

Neguko ospakizunetan lehena,
Axeiren eskutik. Goizetik landa
eremuan ibiliko dira dantzan.
Buruntza auzoa.

IGANDEA 28

ANDOAIN Antzerkia

"Anbotoko Mari" antzerkia,
bideo-animazioa, interakzioa eta
musika biltzen dituen antzezlan
multimedia da.
12:00, *Bastero*.



Estibaliz Ansotegi. GOIERRIKO HITZA

URNIETA Osasun Mentala eta Nerabeak

Urnietako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, "Triba Gurasoak" ekimena abiatu du. Lehen hitzaldia Estibaliz Ansotegiren eskutik. Helburuak: familiaren babes-eginkizuna sustatzea hazkuntzan, deserosotasun-, antsietate- eta jazarpen-egoerak detektatzeko ezagutzak ematea, eta balizko jazarpen-egoerei erantzuteko trebetasunak eta estrategiak eskaintzea.
17:30, *Kiroldegiko aretoa*.

OSTIRALA 2

ANDOAIN Musika klasikoa

Natalia Tchitch, errusiar biola-
jotzailea eta Gloria De Piante Vicin,
italiar piano-jotzailea zuzenean.
20:30, *Bastero*.

IGANDEA 4

ANDOAIN Santa Eskea


Larramendi Bazkunaren eskutik,
entsegu bikoitza: urtarrilaren 30ean,

asteartearekin, eta urtarrilaren 31n,
asteazkenarekin, Ambrosia Olabide
egoitzako sarrera nagusian,
iluntzeko 20:00etan hasita.
18:00, *Dr Huitzitik abiatuta*.

URNIETA Santa Eskea

Kantazaun taldearen ekimenez,
Santa Ageda bezperako ohitura
biziberrituko dute Urnietako
kaleetan. Bigarren entsegu
urtarrilaren 30ean izango da
Kiroldegiko erabilera anitzeko
aretoan. 18:30ean hasita.
11:30-14:00, *San Juan plaza*.


ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO**

Yo, capitan
Lar, 27. 19:30,
22:00.
Ig, 28. 19:30.
Astl, 29. 19:30,
22:00.

El arca de Noe

Lar, 27. 17:00.
Ig, 28. 17:00.



SINOPSISIA

**Yo, capitan (Io capitano)**

Zuzendaria: Matteo Garrone. **Aktoreak:** Sedou Sarr, Moustapha Fall, Bamar Kane, Hichem Yacoubi, Oumar Diaw,... **Herrialdea:** Italia-Belgika-Frantzia (2023). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, etorkinak. **Iraupena:** 122 min.

Oscar sarietarako hautagai irmoa

Seydou eta Moussa Dakar utzi
duten bi gazte dira Europara
bidean ekiteko. Odisea
garaikidea basamortuko
arriskueta, Libiako atxilotze-
zentroetako izugarrikerietan eta
itsasoko arriskueta gero

ostean. Oscar sarietarako
hautagai irmoa da, kanpoko
film onenaren artean hautatu
baitute. Donostiako Zinemaldian
ikuslegoaren saria jaso zuen,
iazko irailean. Etorkinen
sufrikarioa gordinki ageri da.

Puska-biltzea,
Buruntzan

Larunbat honetan, goizeko
08:00tan hasita, Irunberrin ipini
dute hitzordua. Lehen saioa
Buruntzako Garagartza baserrian
egingo dute. Udalerriko hainbat
auzunetan ezberdinetan egiten
dute saioa, eta, oraingoan,
Buruntzan barrena murgilduko
dira. 12:30etik aurrera, San Martin
aztarnategian (Kanposantu zaharra)
saio berezia egingo dute.



AIURRI



andoainDARRA
euskaraz

Inklusibitatea helburu

Inklusibitatea lantzeko futbol jardunaldia antolatu dute Allurralden, igande honetan. Goizeko 11.00tan hasita, 8 urtetik aurrerako neska-mutilak daude deituta, antolatzaileen esanetan, "desgaitasuna duten eta ez duten haur eta gazteei zuzenduta". Andoaingo Udalak eta Euskaldunak bat egin dute ekimenarekin, kirol egokituaren federazioarekin bat eginez.



EUSKALDUNA



Joxe Mari Zeberio. ENBA

"Baserritarron Laguna" izendapena Zeberiori

ENBA nekazarien sindikatuak Joxe Mari Zeberio andoaindarra omenduko du

Xabier Lasa URNIETA

Hernaniko Orona Fundazioaren auditorioan egingo dute urteko batzarra, ostiral honetan. Zeberio bere ibilbide osoan nekazarien sektorea egituratzearen alde egindako lana aitortu nahi du, era horretan, ENBA sindikatuak. Ohar bidez adierazi dutenez, Joxe Mari Zeberio helburu bakarra izan du bere ibilbide osoan, "lehen sektorearen eta familia baserriarentzat etorkizun duinaren alde lan egitea. Helburu horrekin, Candida Iturriaga eta Maria Dañobeitia Fundazioan jardun zuen eta handik bultzatuta, baserritarren egituratzea bultzatu zuen bai sindikal gintzan bai kooperatiben edota gestio-etxeen arloetan".

Bere ibilbidean sakontzen hasita, zenbait datu gogorarazi ditu sindikatuak, hala nola "1999an Munduko Landagunea-Foro Rural Mundial sorreraren gidaritza eman zuen, eta lanaren islada dugu gaur egun mundu osoko 35 miloi nekazarien ordezkari diren 51 eragilez osatutako sarea". Joxe Mari Zeberio Begiristain Ataunen (Aia auzoan, Aiaugaldetxiki baserrian) 1949an jaio zen, eta txikitan, familiarekin Sorabillako Goikoetxerri baserrira etorri zen bizitzera.

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN
Iker eta Haitz Mariezkurrena Zubillaga
Urtarrilaren 28an
Ikerrek 11 urte eta 30ean
Haitzek 8 urte beteko dituzte!
Super ondo ospatuko dugu zuen urtebetzea. Ikaragarri maite zaituztegu!!!
Muxu potoloak!
Amatxo, Aitatxo eta Hegoa.



ANDOAIN
Zorionak Nemesio
Urtarrilaren 23an urteak beteko zituen. Zorionak etxeko eta biloben partetik: Unax, Aner eta Oinatz.

MERKATU TXIKIA

SALGAI

Etxebizitza salgai DONOSTIAN. 299.000 euro Grosetik 3 minutura, toki lasaiean, bikain ko- munikatuta (autobus/tren-geltokiak eta autopista bertatik bertara). Ekipatuta eta egoera onean. 4. pisua / 65 m² / Parking pribatua. 2 balkoi / 3 logela / komuna bainu-ontziarekin (beste komun konpleto bat egiteko aukera) / sukaldea eta jangela bat eginda.

Berogailu indibiduala (gas naturala). Iggailurik ez, baina jartzeko aukera badu. 617 24 97 99

ENPLEGUA

Bi mutilen zaintzailea behar dugu. Andoainen, astelehenetik ostiralera 12:20etik 14:30e----ra 11 eta 13 urteko bi mutileri bazkariko gestioan laguntzeko: **650 34 11 08.**



TELLERIA

Telleria, Igara espazioan

Antton Telleria, Asier K eta Julen Portillo bakarriketariak Kontseilu Sozialistaren Igara egoitzan ariko dira, ostiral honetan. Iluntzeko 19:00tan hasiko da emanaldia. Sarrera librea da. Egoitza Andoaingo Eskola Kaleko 4 zenbakiko etxabearen kokatuta dago, Merkatu plazatik gertu.

Mus-txapelketa, ostiral honetan Andoaingo Irunberrin

Urtarrilaren 26an, ostiralarekin, Euskal Herriko Mus Txapelketa XV. edizioaren kanporake-

ta jokatu da Andoaingo Kale Nagusian dagoen Irunberrin elkartean. Jada izena emateko aukera dago tabernan bertan, baina momentuan ere parte hartu ahal izango da. Bikoteka 20 euro ordaindu behar dira.



ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732 edo publizitatea@aiurri.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /
- ▶ Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ / Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak Aiurri: 90 euro



AIURRIREKIN BATERA

*Kantu
Liburuxka*

2024

LARRE-GAI N
TOLARE SAGARDOTEGIA
943 555 846 - 616 287 867

Ereñotzu
auzoa, 58
Hernani

MIZPIRADI 943 59 39 54
SAGARDOTEGIA

Leizotz, 14 - ANDOAIN - www.mizpiradi.eus

sagarra, sagarrondo, sagardoa

gure lurri estuki lotuta doa

ANDOA INKURTEGIA
ANDOAINGO UDALA

sagardoa
route

Ez Zaitez EROTU!

HEMENEK ALBARRERA ERRESERBATU
ZURE MAHAIA KLIK BATEAN

www.sagardoa.eus

943 336 811 - info@sagardoa.eus

Zatoz gure sagardotegira!
Erreserbak: 943 554 917 - 650 266 925

ALTONA

Galarroga baserria, 5. Lategi. Urnieta

BURUNTZALDEA, sagardoaren lurraldea
KUPELA, sagardoaren hotela
HK10, sagardozaleen lagilea

HOTEL
HK10
HOTELA

Hotel K10
943 337 357
info@hotelk10.com
Erratzu industrialdea. Urnieta

943 59 19 68

GAZTANAGA
SAGARDOTEGIA

www.sidreriagaztanaga.com
info@sidreriagaztanaga.com

Irurain etxea
Buruntza
auzoa
ANDOAIN

O! OIANUME
SAGARDOTEGIA

OIANUME
SAGARDOTEGIA - JATETXEA

oianume.com/eu - oianume@oianume.com
943 55 66 83 Ergoien, 18 - Urnieta

EULA
TOLARE SAGARDOTEGIA
URNIETA

943 552 744 - 647 437 703

www.eulasagardotegia.com

**RZA
BA
LA**

Tolare
Sagardotegia

943 69 07 74
www.rzabala.com
info@rzabala.com

Goiburu
auzoa, 5
ADUNA